



## **OHIKO BATZAR OROKORRAREN AKTA ACTA DE LA ASAMBLEA GENERAL ORDINARIA**

Casares Kultur Etxean, 2003ko otsailaren 1an Altzako Historia Mintegiaren Ohiko Batzar Orokorrari hasiera eman zitzaion goizeko 11.00tan, ondoko partaide hauekin: Jon Serrano, Antxon Alfaro, José Mari Cendoya (Mari Paz Sainz Ubarrechenaren izenean), Angel Calvo, Luis Mari Ralla, Iñigo Landa, Juan Carlos Mora, José Luis Mangas, Charo Roquero, Kepa Amondarain, Agustin Rodriguez, Lazaro Altuna eta Javier Cantera.

*En la Casa de Cultura Casares, a las 11.00 de la mañana del día 1 de febrero de 2003, se celebró la Asamblea General Ordinaria de Altzako Historia Mintegia con la participación de Jon Serrano, Javier Cantera, Antxon Alfaro, Luis Mari Ralla, José Luis Mangas, Juan Carlos Mora, José Mari Cendoya (con poder de Mari Paz Sainz Ubarrechenena), Angel Calvo, Charo Roquero, Lazaro Altuna, Kepa Amondarain, Agustin Rodríguez e Iñigo Landa.*

### **1. Aurreko Batzarraren aktaren onarpena / Aprobación del acta de la Asamblea anterior**

2002ko otsailaren 2ko Ohiko Batzar Orokorraren akta onartua izan zen.

*Se aprobó el acta de la Asamblea General Ordinaria celebrada el 2 de febrero de 2002.*

### **2. 2002. urteko memoriaren onarpena / Aprobación de la memoria del año 2002**

#### **ALTZAKO TOKIKO BILDUMA**

**Juan Carlos Mora**

*Aurreko urteetan hasitako lana eta kudeaketa teknikoarekin jarraitu dugu 2002. urtean zehar. Hori dela eta, dokumentazioaren bilketa eta bere katalogazioa izan dira oinarritzko lanak, 500 dokumentu berri inguru jaso eta sailkatu direlarik. Honekin batera, jendeari emaniko aholkularitza azpimarratu daiteke (150 kontsulta). Kanpoko harremanak ezin dira ahaztu, hainbat erakunde eta eskolekin bildu gara eta, gure lana eta zerbitzua beraiei eskaintzeko asmoarekin eta era berean, euren dokumentuak jaso nahian. Azkenik, Altzako Tokiko Bilduma prentsan azaldu da pare bat aldiz, Altzako iragana eta nortasuna berreskuratzeko eta sendotzeko tresna ezin hobea dela gogoratu.*

A lo largo del año 2002 se ha continuado con el trabajo y la gestión técnica iniciada años atrás. Así, la recopilación de documentación y su catalogación han sido las actividades básicas, habiéndose reunido y clasificado cerca de 500 nuevos documentos. Junto a esto, se debe subrayar el servicio de consulta y asesoría puesto a disposición de la gente (150 consultas). No se pueden olvidar las relaciones externas, ya que nos hemos reunido con bastantes entidades y colegios, con el objetivo de darles a conocer nuestro trabajo, pero también con la finalidad de recoger documentación producida por ellos. Por último, la Colección Local de Alza ha sido objeto de un par de artículos en la prensa, en la que se nos recordaba su importancia para la recuperación de la historia de Alza y su importante papel para el fortalecimiento de nuestra identidad.

#### **IBILALDIAK**

**Ángel Calvo**

- Bilera bat egin genuen Dorreak auzo elkartekoekin ibilaldiak prestatzeko baina ez da ezer gauzatu.*
- Ez ditugu aurreikusita genituen txangoak egin.*

*Bi asteburu egin ditugu Artikutzan, bat apirilean (27 partaide) eta beste bat abenduan (24 lagun). Partaideak bazkideak edota Mintegiarekin harremanak dauzkaten pertsonekin eta haien familiak izan dira. Helburuak izan dira hainbat aktibitate prestatzea, harremanak sendotzea, eta Artikutzako natur eta etnografi interesguneak ezagutzea.*

#### **AGIRITEGIAK**

**Juan Carlos Mora**

Altzako historia berreskuratu nahian, zenbait artxibotan ari gara lanean:

- Gipuzkoako Artxibategi Orokorra: Protokoloak deitutako Sailean 35 dokumentu aurkitu ditugu (zentzuak, ordainagiriak...)
- Errenteriako Udal Agiritegia: Akta liburuetan Altzako biztanleen ekonomiko jarduerekin loturik dagoen dokumentazioa (50 aipamen).
- Donostiako Udal Artxiboa: Akta liburua (1850-1900)

## **AHOLKULARITZA ETA KULTURA-DINAMIZAZIOA**

**Juan Carlos Mora**

*Azken urteotan jarritako oinarriari esker, Altzako hainbat elkarte eta erakundek guregana jo dute, beraiek antolatutako kultur ekintzetan aholkularitzaren bila (Herrera Ikastetxea, Bidebietako Dorreak Elkartea, Herri Ametsa Ikastola...), batez ere historiarekin zer ikusirik prestatu dituzten jarduerak ondo bideratzeko (urteurrenak, erakusketak eta abar). Altzako nortasuna bizirik dagoela erakutsi digu zerbitzu honek, elkarrekin eta erakundeekin egiten duten lanari laguntzeko Altzako historia gero eta gehiago erabiltzen baita.*

### **“GANBARA”**

#### **ETXERAKO INDUSTRIA JATORRIKO MATERIALEN BILDUMA**

**Javier Cantera**

*Tres son los hitos más importantes que marcaron la trayectoria de nuestra colección Ganbara en el pasado año 2002:*

*El salto al “espacio público” a través del órgano de difusión de AHM Estibaus. Efectivamente, en los cuatro números editados durante el año 2002 ha aparecido la pequeña historia y descripción de 4 objetos de nuestra colección que después de haber realizado puntualmente el trabajo que se les encomendó, han venido a disfrutar de un merecido descanso a nuestro txoko de Altza.*

*Como consecuencia de lo anteriormente expuesto, se ha apreciado un aumento del interés por parte de personas en hacer donaciones, habiéndose producido contactos con resultado de haberse materializado las mismas hasta un total de 32 objetos.*

*Ha sido el año en el que se ha invertido más dinero en la adquisición de objetos, ascendiendo a un total de 257 Euros.*

*Así mismo en Marzo se realizó un Informe sentando las directrices del Proyecto Ganbara, definiendo los parámetros esenciales de su objeto, propósito y método operativo.*

*Evidentemente, el mayor problema al que se enfrenta este proyecto es la falta de medios, tanto de espacio como económicos y las futuras actuaciones se deberán encaminar a corregir estas debilidades.*

### **ARGITALPENAK**

**Iñigo Landa**

*Aurreikusita genituen helburuak bete ditugu.*

- *Hautsa Kenduz VII liburua argitalpenerako lanak egin ditugu: ohiko kolaboratzaileekin kontaktatu, kolaborazio berriak bilatu...*
- *Estibaus Buletina: aurreko urteetan bezala lau zenbaki kaleratu ditugu eta tirada handitu dugu (600 ale).*
- *Artiga Bildumaren 5. zenbakia: “La vida de Altza a través de sus actas municipales: 1843-1900” izenburua duena eta M<sup>a</sup> Rosario Roquero Ussia-k idatzi duena. 700 aleko tirada egin dugu, 96 orrialde ditu. Liburuaren aurkezpena 45 lagun gerturatu ziren eta egileak berak hitzaldi bat eskaini zuen.*
- *Egutegia: 2003. urteko egutegia argitaratu dugu, argazki-lehiaketan irabazi duten argazkiekin. 1000 aleko tirada egin da eta herriko olentzerotan, dendetan eta kultur etxearen bitartez banatu dira.*

### **BEKA**

**Iñigo Landa**

*Helburua bete dugu. VI. deialdia arrakastaz burutu dugu eta VII. deialdia egiteko prestaketak ere egin ditugu 2003. urtean zehar gauzatzea espero duguna.*

### **ARGAZKI LEHIAKETA**

**Jon Serrano**

Argazki lehiaketaren bigarren edizioan bakarrik bi partaide egon dira eta emaitza polita izan bada ere gaia birplanteatu beharko da. Atal honetan egindako lana handia izan da eta balorapena oso ona.

## **ALTZANET**

### **Antxon Alfaro**

Orokorrean, markatutako helburuak neurri handi batean lortu dira. Oraingoz elkartean inplikazioa ez da oso handia izan baino espero dugu Altzako Teknologiko Berrien Zentroaren eraginez erabilera animatuko dela.

Egindako ekintza nagusiak hauek izan dira:ç

- Sentsibilizazio bilerak
- Helbide elektronikoak dohainik banatu ditugu elkarte eta herritarren artean, [altza.net](http://altza.net) domeinuarekin.
- Posta zerrendak bultzatu eta kudeatu ditugu: [altzanet@altza.net](mailto:altzanet@altza.net) zerrendan 100 pertsona eta elkarte bildu dira; [altza21@altza.net](mailto:altza21@altza.net) zerrendan Altxa XXI Herri Ekimeneko partaidena.
- Altzari buruzko informazioa, hamabostean behin eguneratzen dena.
- AHMren webgunea kudeatu eta handitu. Aipagarria da Estibaus buletinaren edizio elektronikoa da eta joan den urtean martxan jarri genuen atal berria, Altzako Ondare Dokumentala, oraindik behar bezala gauzatu ez dena.

Elkarteen webguneak. Aurten bi berri egin dira.

## **BAZKIDEAK, HARREMANAK ETA FINANTZIAZIOA**

### **Jon Serrano**

Helburu hau ongi bete dugu, bazkide kopurua handitu dugu eta azkenean gure jarduerak modu duin batez burutzeko oinarritzko finantziarioa eskuratu dugu.

## **ALTZAKO BESTE ELKARTEEKIN HARREMANAK**

### **Jon Serrano**

Atal honetan egindako lana handia izan da eta balorapena oso ona.

- Alkate ohien familikoekin: Raimundo Artaza; Carmen Tejada.
- Partikularrak (informazioa, argazkiak...): Enrique Arzak, Francisco Lasa, Luis Murugarren, Juantxo Egaña, Luis Lemoniez, Begoña Kortajarena, Félix Velasco, Fermín Muñoz, Jose Mari Lasa, Patxi Lazkano.
- Entitateak: Larraxoko Parrokia; Junta de Obras del Puerto; Kutxa Fototeka; Trikitilarien Elkarte, Bidebietako Institutua.
- Kolaborazioak: Paco Sagarzazu, Hilari Pagazaurtundua, Antonio Cañamero,
- Herrera Ikastetxearekin lan egin dugu 50. urteurrenaren ospakizunetan hitzaldi bat emanez eta argazki erakusketarako materiala biltzen.
- Aurreko urteetan bezala, Herri Ametsa Ikastolaren aldizkarian lagundu dugu Orotariko Altxatar Hiztegia eginez.
- Bai Euskarari kanpainaren inguruan egindako Plan Estrategikoan parte hartu dugu. Orain arte diagnostikoa egin da eta datozen bileretan konpromisoak zehaztuko dira.
- Altxa XXI Herri Ekimenarekin elkar lana egin dugu, bileretan parte hartuz eta burutu dituzten ekimenak laguntzen.
- Donostiako Udalak Altxarentzat bultzatu duen Plan Komunitarioaren inguruan egin diren bileretan parte hartu dugu, oraindik helburua zein oso ongi ez dakigula.

### **3. 2002. urteko kontuen onarpena / Aprobación de las cuentas del año 2002.**

#### **EKONOMI BALANTZEA**

	<u>SARRERAK</u>	<u>GASTUAK</u>
Aurreko saldoa (2001/31/12)	4.432,85	
Bazkide kuotak	816,08	
Donostiako Kultur Patronatua (Dirulaguntza)	601,00	
Orona	943,66	
Interesak	3,46	

Beka (2002)	1.202,02	1.202,02
Tokiko Bilduma (Kudeaketa)	7.734,25	7.197,39
Fototeka	128,00	412,47
Kudeaketa		187,96
Estibaus Buletina	450,00	941,90
Altzanet Proiektua (2001)	2.699,71	5.119,66
Altzanet Proiektua (2002)	1.323,00	1.635,54
Argitalpenak (Artiga-4)	150,25	
Etxeko-Tresnak Bilduma		257,00
Egutegia	300,00	559,00
Argazki Lehiaketa		300,00
Gipuzkoako Foru Aldundia (zergak)		1.033,73
Besteak		160,89
		<hr/>
GUZTIRA . . .	<b>20.784,28</b>	<b>19.007,56</b>

**SALDOA (2002/12/31): 1.776,72 €**

• **KOBRATU EDO ORDAINDU GABE**

	+	-
<b>Saldoa (2002/12/31)</b>	<b>1.776,72</b>	
Altzanet (Donostiako Udala-40%)	567,00	254,46
Foru Aldundia (IRPF)		1.066,80
Egutegia	150,00	
Fototeka	144,00	
	<b>2.637,72</b>	<b>1.321,26</b>

**Saldoa (2002) ≈ 1.316,46 €**

**4. 2003. urterako egitasmoa / Plan de actividades para el año 2003.**

Aurreko urtearen eskemarekin jarraitzea erabaki zen, bereziki gai hauetan ahalegin berezia eginez:

- Ibilaldien programa indartu, batez ere Nafarroako Erdi Aroko gazteluak bisitatuz
- Ganbara Bildumarentzat lokala bat bilatzen saiatu eta honentzako proiektu bat prestatu.
- Donostia-kulturarekin gure jarduera bere osotasunean hartuko lukeen hitzarmena gauzatzeko saiatuko gara.

*Se decidió continuar con el esquema de actividades del año anterior, dedicando una atención especial a los siguientes temas:*

- Consolidar el plan de excursiones, que se centrarán principal mente en la visita de castillos medievales de Navarra.*
- Buscar un local para la Colección Ganbara y concretar el proyecto de museo.*
- Continuar trabajando en la búsqueda de un convenio con Donostia-Kultura que recoja de una forma coherente y de futuro el conjunto de las actividades.*

**5. Bazkide berrien onarpena / Admisión de nuevos soci@s.**

Aho batez onartuak izan ziren bazkide berri hauek:

*Fueron admitidos por unanimidad las siguientes nuevos socios y socias:*

**GUTIERREZ RODRIGUEZ, LOURDES; PINEDO URTXULUTEGI, IMACULADA; BEREZIARTUA**

ALBERDI, JOXE RAMON; CANTERA DEPETRIS, JESUS MARIA; AIERBE IRAOLA, MIGUEL; URKIA AGIRREZABALA, IÑAKI; ZARRANZ GARCIA, IÑAKI; VEGA SÁNCHEZ ,JON ANDER; ISASTI CARRANZA, JESÚS; ALBERDI OLAIZOLA, ESTIBALIZ; GONZALEZ ATORRASAGASTI, ELENA; BERASATEGI AGIRRE, ARANTZA; OTEGI ATORRASAGASTI, ANA; PIA ARANGUREN, AMAGOIA; RUBIO PEREZ, MANUEL; LIZARRAGA MURUA, JOSE VALENTIN; QUERALT COIRA, IÑAKI; OSTOLAZA ALCOCER, IMANOL MIRENA; CANTERA ARAKAMA, MIREN KORO; ELOSEGI ETXENIKE, VICENTE; ALBIZU FIDALGO, MARIBEL; IGLESIAS HERNANDEZ, LUIS; ECHENIQUE ARZAC, PILAR; LUQUE CERRATO, MARI JOSE; BARRERO ARZAK, FERNANDO.

## **6. Bestelakoak**

Proposatu zen bazkide-kuota igotzea. Elkartea sortu zenetik ez da kuota aldatu eta eguneratzea beharrezkoa ikusi zen. Proposatu eta onartu zen kuota datozen bi urteetan 6 eurotik 10era igotzea, 8 euro 2003. urtean eta 10 euro 2004. urtean.

Besterik gabe batzarra amaitutzat eman zen.

Sin otro particular la asamblea general se dio por terminada.

Idazkaria

Lehendakaria

Iñigo Landa

Jon Serrano